



ETXEAN ZAUDE



*Betetzen al du
EITB komunikazio
taldeak bere zeregin
informatiboa
zerbitzu publiko
moduan*

*Lurraldetasunaren trataera eta subjektu
politikoen protagonismoa*



iparhegoa

IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

AURKEZPENA

1.- AZTIKERREN IKERKETA:

1. ATALA: Lurraldetasunaren trataera eta subjektu politiko ezberdinen protagonismoa EITB taldeko albistegietan

1.1.- IKERKETAREN MARKO TEORIKOA

1.2.- METODOZKO OHARRAK:

- Xehetasun teknikoak (laburpena)
- Erabilitako teknika
- Laginketa
- Azterketa fitxa

1.3.- IKERKETAREN LEHENENGO PARTEAREN LABURPENA

2.- LAB SINDIKATUAREN ONDORIOAK

AURKEZPENA

IPAR HEGOIA FUNDAZIOAN, ikerketa soziologikoen AZTIKER zentroak egindako azterlan honekin, berria ez den kezka sozial bat jorratu nahi izan dugu, hots, hedabide publikoek informazio-bide gisa duten rolaekin zerikusia duen kezka bat; aztergai dugun kasuan, hedabide horiek EITB taldean biltzen dira. Azterlanak galdera bati erantzun nahi dio, alegia, ea EITB taldeak betetzen ote duen, informazioaren alorrean, zerbitzu publiko bati exijitu behar zaiona: kalitateko informazio-zerbitzua eskaintzea hedabidea eratu duen gizarteari, gogoan izanda, gainera, zergadunen diruarekin ordaintzen dela.

EITB taldeari leporatzen zaion partzialtasunari lotutako kritikak areagotu egin dira azken bi urteotan. Hala eta guztiz ere, Fundazioan uste dugu albistegiak alderdikieriaz eta gobernutresna bezala erabiltzea ez dela inola ere egoera berria; aitzitik, uste dugu beti izan dela horrela. Agian oraingo erabilera traketsak mutur jasangaitzera eraman du egoera hori. Izan ere, ETBk % 23 eta % 25 bitarteko ikusle-kuota zuen 2004an; sei urte geroago, 2010eko urrian, %9,4 baino ez du gutzira (% 7,7 ETB2k eta % 1,7 ETB1ek)¹.


Badakigu, ondo jakin ere, iritziaren sorrera beste tresna batzuekin ere garatzen dela azken aldi honetan, hots, albistegiak baino denbora-tarte gehiago betetzen duten tresnekin, hala nola tertuliekin; nolana ere, haien konplexutasunaren eraginez, beste tresna horiek azterlanetik kanpo utzi ditugu oraingoan. Azterlan honetarako, kontuan hartu ditugu ETB1, ETB2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiren eguneroko albistegiak, 2010eko irailetik abendura bitartean. AZTIKERek aplikatu duen eta azterlanean xehetasunez azaltzen den metodologiaren arabera, **kate guztietako 28 albistegi** aztertu dira, asteko egun bakoitzekoak, guztira **1.065 albiste** jorratuz.

Azterlanak azaltzen duen bezala, albistegi bat osatzen duten elementu guztien atzean hautaketa prozesu bat dago. Hautatuak diren gertakari, terminologia, esparru, irudi eta pertsonaiak pentsaera kolektiboaren definiziorako bitartekoak dira.

Azterlanak hiru faktore jorratzen ditu, zeren eta, gure iritzi, horiexek baitira ondoen islatzen dutenak euskal errealitate sozialaren eta errealitate horrek EITB hedabide publikoan duten tratamendu informatiboaren arteko lotura.

Lehen faktorea informatiboetako edukien **eremu geopolitikoaren** eta transmititzen diren gutasun adierazpen inplizitu eta esplizituen ingurukoa da. Horretarako, besteak beste, berrien eremu geografikoa hartzen da kontuan, euren eragin-eremua, berriekin batera erabiltzen diren irudiak, euren hierarkizazioa... Subjektu politiko ezberdinen trataera eta protagonismoa ere aztertzen dira.

Betetzen al du
EITB komunikazio
taldeak
bere zeregin
informatiboa
zerbitzu publiko
moduan



¹ Ramón Zallok Rebelión-en argitaratutako "Salvar EITB" artikuluan jasotako datua.

Bigarren faktorea trataera informatiboaren azterketa da **genero ikuspegi batetik**. Hau da, zer rol jokatzen du EITBk genero-berdintasunaren aldeko apustuan? Zer-nolako balioak transmititzen dira informazioaren testuinguruan? Zer estereotipo nabarmentzen dira? Zer protagonismo dute euskal emakumeek albisteetan?

Hirugarrena faktore **sozioekonomikoa** da. Hau da, oraingo krisi ekonomiko eta sozialaren testuinguruan, zer-nolako informazio sozioekonomikoa transmititzen da? Zer balorapen egiten da bere kausei buruz? Nortzuk dute hitza?

Azterlanaren hiru zati horiek badute dimentsio nahikoa banan-banan agertzeko eta aztertzeko, protagonismo propioarekin.

Oraingo honetan, lurralde trataera eta subjektu politiko ezberdinen protagonismoa deritzon atalari dagokion txostenaren zatia aurkezten dizuegu.

Oraingoz, azterlanaren zati bakoitzaren inguruan egiten diren gogoetak eta ateratzen diren ondorioak argitaratuko ditugu. Dena dela, azterlanaren eduki osoa eta oinarritzat hartutako metodologiaren azalpena eragile sozial eta politiko guztien esku jartzen da, eta horretarako ikusgai egongo da gure web orrialdean.

[a] aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

EITBko ALBISTEGIEN AZTERKETA LURRALDETASUNAREN TRATAERA



Bezeroak:

iparhegoa
Basque Cultural Foundation

baietz!
FUNDATZIOA

1.- AZTIKERREN IKERKETA

1. ATALA: Lurraldetasunaren trataera eta subjektu politiko ezberdinen protagonismoa EITB taldeko albistegietan.

1.1.- IKERKETAREN MARKO TEORIKOA

Masa komunikabideak ingurune soziopolitikoaren gaineko pertzepzioa sortzeko bitartekoak dira egungo jendartean. Beraien bidez, antolaketa soziopolitiko eta administratibo jakinak marraztu eta konfiguratzeko dira.

Lan honetarako izan diren komunikabide publikoak ere **erreproduktzio sozialaren** papera betetzeaz haratago, **agente sortzaileak** bilakatzen dira. Albistegi bat osatzen duten elementu guztien atzean hautaketa prozesu bat dago, batzuetan inkontzientea, kontzientea beste askotan. Hautatuak diren gertakari, terminologia, esparru, irudi eta **pertsonaiak pentsaera kolektiboaren definiziorako** bitartekoak dira.

Errealitatea sozialki eraikitzen den fenomeno izanik, komunikabideek inguruneari buruzko errepresentazioa nola egiten duten jorratu dugu azterketa honen bidez, EITBren barruko lau hedabideen eskaintza informatiboa jorratuz.

Hedabideek propio kontsideratzen duten esparruaren definizioan eta mugarrizetan lan handia egiten dute. "Gure" lur-esparrua zein den, "hemengoak/kanpokoak" zeintzuk eta nolakoak diren, zerk bereizten dituen "kanpokoekiko", nongo gauzak zaizkion interesgarri eta, hitz gutxitan esanda, maila guztietako harremanetarako joko-eremua definitzeko lanetan aporazio indartsua egiten dute.

Lurraldea, informazio unitate orotan eta albistegiaren egituraketan bertan, uneoro presente dagoen elementua da, osagai desberdinen bitartez plazaratzen dena publikoaren begi eta belarrietara. Lurraldea ez da kontzepzio abstraktua, eremu geopolitikoaren definizioaren bitartez harremanetarako markoa eta bertan legitimatutzat hartzen diren agente eta harreman mota zehatzak kokatzen dira, eta kontrako norabidean, mugariak ezarri.


Beraz, ikerketa honen abiapuntuan eta xedean dago jakitea zein den EITBk bere albistegien bidez egiten duen ekarria.

1.2.- METODOZKO OHARRAK

• XEHETASUN TEKNIKOAK (LABURPENA):

Unibertsoa: EITBko lau hedabideen albistegiak

Betetzen al du
EITB komunikazio
taldeak
bere zeregin
informatiboa
zerbitzu publiko
moduan



Lagina:

ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiko 28 albistegi saio. Hedabide bakoitzeko eta astegun bakoitzeko bana.

Guztira, behatutako albiste kopurua 1.065 izan da.

Landa-lana: 2010eko irailaren 18tik azaroaren 8 bitartean.

• ERABILITAKO TEKNIKA

Ikerketaren helburu nagusia EITBko albistegien edukiak eta zehazki harreman politiko eta sozialetarako eremu geopolitikoa zein den jakitea izanik, edukien azterketa izan da erabilitako prozedura. Zehazki, grabatutako albistegietako hitzezko zein irudi bidezko edukien erauzketarako Fitxaren bitartez burutu dugu azterketa, modu honetan EITBko eduki eta diskurtsoen azterketa kuantitatiboa burutuz.

Laginaren unitatea albistegia izan da. Albistegia, aurkezle propioekin telebista zein irratiko gainontzeko programaziotik berezituta eta giza baliabide zein baliabide tekniko propioekin garatutako informaziorako tartea da. Honetarako, telebistako laginean Kiroleko atala kontuan hartu da, ez, ordea, Eguraldia.

Irratiaren kasuan, Kultura, Trafikoa eta Kiroleko Atalak aintzat hartu dira, eta Euskadi Irratiaren kasuan, Gertukoak saila ere.

Azterketa unitate gisa albistea erabili dugu. Behaketarako oinarrizko elementua izan da, albistek izan direlako edukien arabera azterketa egiteko erabilitako informazio unitatea. Informazio unitate hau identifikatzea ezinbestekoa da modu operatibo batean albistegien hitzezko zein irudi bidezko azterketa gauzatzeko.

Albistea, beraz, albistegietako informazio orokorra eskaintzen digun elementu nagusia da. Halere, esplizitazio geopolitikodun informazioa jasotzeko albiste bakoitzaren baitako hitzak aztertu ditugu, honek eskaintzen digulako lurralde eta nortasunari buruzko informazio zehatza kasu bakoitzean. Hitzeko informazio hau kazetarien ahotik eta teleprinterretan agerturiko hitzezko informazioaren ustiaketaren bitartez bildu ahal izan da.

Albistek tematikoki zedarritu ditugu, egitura aldetik ere gutxienik aurkezle baten informazio edo sarrera bat eta gertakari edo ekintza bat exijitzen duelarik.

Emaitzak ere unitate honen azterketaren arabera aurkezten ditugu.

Kodifikazioaren bitartez albiste bakoitzaren azterketak emandako datu gordinak sailkatu ditugu.

Sailkapen hauek, era berean, eraldatu eta berriro sailkatuak izan dira kategoría berrietan birkodetze sistemaren bitartez.

• LAGINKETA

Unibertsoa EITB kate publikoko eguneroko albistegiak da, ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadikoak, alegia.

Lagina unibertso osoaren argazki ordezkagarriena izan dadin, hedabide bakoitzean asteko egun guztiak bildu dituen kronograma osatu dugu.

Astegun guztietako hedabide guztietako albistegi bana aukeratzeko kronograma burutu dugu, beraz.

Hedabide bakoitzeko albisteen artean gutxieneko 7 egunetako tarte utzi dugu, bata eta bestearen artean tematikoki errepikakorra suerta daitekeen informazioa ekiditearren.

lkerketaren azterketarako oinarrizko unitate izan diren 1.066 albiste behatu ditugu osotara.

Hedabideka, modu honetan banatu dira albiste hauek:

- ETB1- 209 albiste.
- ETB2- 270 albiste.
- Euskadi Irratia- 329 albiste.
- Radio Euskadi- 258 albiste.

Telebistaren kasuan, gaueko albistegiak aztertu dira, ETB1en gaueko 20.00tan hasita, eta ETB2ren kasuan, gaueko 21.00tan hasita.

Irratiari dagokionez eguerdiko albistegiak landu dira, Euskadi Irratiaren kasuan, 13.00etatik 14.30etara bitartean emititzen dena, eta Radio Euskadin 13.00etatik 15.00etara bitartekoa.

Orotara, 95.644 segundotako tarte jorratu izan dira, denborak honela banatzen direlarik lau hedabideen artean:

- ETB1- 13.969 segundu/232,8 minutu/3,9 ordu.
- ETB2- 18.975 segundu/316,3 minutu/5,3 ordu.
- Euskadi Irratia- 29.344 segundu/489,1 minutu/8,2 ordu.
- Radio Euskadi- 33.356 segundu/489,1 minutu/9,3 ordu.


• AZTERKETA FITXA

Aztertu nahi genituen gaien inguruko aldagaiekin osatu da Azterketa Fitxa.

Fitxa honek lau atal nagusi biltzen ditu:

- *Egitura*. Albistegiaren antolaketaren behaketarako atala. Albistegiaren baitako kokapena, informazio tematikoa eta iraupena eskaintzen dizkigu.
- *Lokalizazioa*. Albisteen esparru geografikoen kokapenaren informazioa eskaintzen diguten aldagaiak biltzen ditu.

Betetzen al du
EITB komunikazio
taldeak
bere zeregin
informatiboa
zerbitzu publiko
moduan



- *Esplizitazio eta inplizitazio geopolitikoak.* Hitzezko zein irudi bidezko informazioa eskaintzen diguten aldagaiek osatzen dute. Hitzezko informazioa kazetarien adierazpenen bidez zein teleprinterretan idazten dena, hitzezkoa baita bertan ageri den informazioa.
- *SUBJEKTUak.* Albisteetako protagonistak diren pertsonen ezaugarriak identifikatzeko atala dugu hau. Pertsonen ezaugarrien inguruko informazioa, eta albistean agertzen diren modu eta denboratan ematen den informazioa lortu da.

Honetaz gain, albiste eta albistegi bakoitza erregistratzeko Identifikaziorako atala sortu dugu ere. Modu honetan, albiste bakoitzak biltzen duen informazio guztia albiste kodigo bati egokituko zaio, Albiste egun eta hedabide baten baitako informazio gisa.

1.3.- IKERKETAREN LEHEN ATALAREN LABURPENA: LURRALDE TASUNAREN ETA SUBJEKTU POLITIKO EZBERDINEN TRATAERA EITB TALDEKO ALBISTEGIETAN

• ALBISTEEN ANTOLAKETA

- EITBko albistegietan Kirola da gehien lantzen den gaia, notizia kopuru (%29,7) zein hauei eskaintzen zaien denborari dagokionean (%33,1).
- Bigarren mailan Politika (%20,4) aurkitzen da, eta jarraian Jendartea (%19,7).
- Hedabide bakoitzean egindako azterketa berezitan, Kulturari Irratietan telebistan baino tarte handiagoa eskaintzen zaiola ikus daiteke.
- Politikako albisteak dira lehentasunez ageri direnak albistegietan (%60,7) eta Jendarteko albisteak bigarren postuan sailkatzen dira, datu erlatibo altuarekin (%15,7).

• KOKAPENA

- Titularretan agertzen diren albisten %50,6a Euskal Autonomia Erkidegoan gertaturikoak da eta %16,8a Espainiar Estatuan.
- Titular hauetako albistek duten eragin esparruari dagokionean, ordea, espainiarra agertzen da albisten %32,4an eta EAEkoa %37,2an.
- Albisteei dagokienez, datuek joera berdintsua adierazten digute. Albiste gehienak EAEkoak dira (%46,5), baina albiste horien eragin esparrua aztertzerakoan Espainiara jotzeko joera ikusten da kasuen %30,1ean, EAEkoa Espainiako albisten mesedetan %33,6ra jaisten den bitartean.
- Ordenari dagokionean, lehentasunezko albisteak EAEn jazozen direnak dira, Espainiakoek %21,4 osatzen duten bitartean.

- Bigarren mailako albisteen kasuan EAEkoak %37,4 dira eta Espainiakoak %20,1a.
- Garrantzia duten azken albisteen %22,2a Espainian gertatutakoak dira eta %33,3a Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Laburtuz, nagusiki EAEko albisteak izan arren, hein handi batean Espainiar Estatuan eragina duten albisteak bilatzen direla adieraz daiteke.


• ESPLIZITAZIO ETA INPLIZITAZIO GEOPOLITIKOAK

- Aditzondoan kasuan %68,0k EAERI egiten dio aipamena eta %17,3ak Hego Euskal Herriari. Kasu honetan, batik bat, Kirolari loturiko albisteetan.
- Lurraldearen inguruko adierazpen terminologiko erabilienak "Euskadi" (%29,1) eta "Espainia" (%24,7) dira. "Euskal Herria" adierazpenek %8,5a suposatzen dute, batik bat Euskadi Irratian entzuten direnak.
- Era inplizituan adierazten diren adierazpideak nagusiki Espainiari aipamen egiten dizkiotekak dira (%50,3). EAEkoak, aldiz, %30,5 dira.
- Albistegietan agertzen diren instituzioen jatorria edo eremua neurtu dugu eta agertzen diren %45,2ak EAEkoak dira. Espainia ordezkatzen duten erakundeak %43,5a dira.
- Izen toponimikoen hizkuntzaren erabilerari erreparatuta, euskarazko hedabideetan adierazpen elebidunak %34,6a dira eta gainontzekoak (%65,4) euskaraz adieraziak dira. Gaztelarazkoetan, %21,3 dira euskaraz eta %1,5a elebidunak.
- Azkenik, ETBn ageri zaizkigun irudien %51,4a Espainiar lurraldea ordezkatzen dutela ikus daiteke. Irudien %37,7a EAEko irudiek osatzen dute.
- Modu laburrean adierazita, EITBk propio egiten duen eremua EAE izanik ere, Espainiarekiko lotura modu subliminalean adierazten da bere albistegietan.

• SUBJEKTUAK

- EITBn agertzen diren pertsonaien %44,8a EAEkoak dira, agertzen diren maiztasunari dagokionez. Eskaintzen zaien denborari begiratuta, protagonista hauek denboraren %53,3a erabiltzen dute.
- Jatorri espainiarreko pertsonaiek agerpen kopuruen %19,8a osatzen dute, denboran datua arinki jaisten den bitartean.
- Alderdi politikoak ere behatu ditugu, eta modu argian PSOE/PSE da agerpen kopuru zein denboran espazio gehien betetzen duen alderdi politikoa.

Betetzen al du
EITB komunikazio
taldeak
bere zeregin
informatiboa
zerbitzu publiko
moduan



12

Maiztasunari dagokionez %47,0 ageri da, eta denboraren %44,6 betetzen du PSOEk.

- Bigarren mailan EAJ-PNV ageri zaigu agerpenen %21,9arekin. EAJk denboraren %35,9a jasotzen du.

LAB SINDIKATUAREN ONDORIOAK

EITB komunikazio talde publikoaren albistegiei buruzko azterlan interesgarriaren lehenengo zatitik bost ondorio azpimarra daitezke. Jarraian garatuko ditugun ondorio horiek baliagarriak izan beharko lirateke euskal komunikazio taldearen ereduaz eta bete behar dituen eginkizunez hausnartzen hasteko, talde hori zerbitzu publikoa den aldetik. Hona hemen ondorio horiek:

- 1.- **"EZ-informazioaren" aldeko apustua.**
- 2.- **Euskal Herria ez da existitzen: esparru autonomikoaren erreferentzia indartu egiten da gainean dagoen errealitate sozial eta politiko baten zati gisa: Estatu espainolaren zati gisa.**
- 3.- **Albistegiak alderdikeriaz erabiltzen dira, eta ezker abertzaleari buruzko informazioak iragazkitik pasatzen dira.**
- 4.- **Komunikazio eredu honek baztertu egiten ditu bai bere errealitate propioa eta bai bere jardunaren hartzailea den gizartea.**
- 5.- **Komunikazio eredu honen kudeaketak tentsioak sortzen ditu hedabideetako plantillak osatzen dituzten profesionalengan.**

1.- Lehenengo egiaztapena Ez-informazioaren aldeko apustua da.

Oro har, taldeko albistegietan ikus daiteke kirola dela denbora gehien hartzen duen informazio-tartea, denbora osoaren % 33 ematen baitaio. Dena dela, lehenengo postu hori ez dago lotuta eskaintzen zaion denbora-tarteari soilik, zeren albisteen ehunekorik handiena ere hartzen baitu: % 29,7; hau da, 10 albistetatik 3 kirolekoak dira.


Informazioak jorratzen duen hurrengo gaia politikaren alorra da, albiste guztien %20,4ko kuotarekin, beraz, oso atzetik geratzen da kirolari buruzko informaziotik (9 puntu gutxiago). **Kirolari eskaintako albiste kopurua politikari eta ekonomiari batera eskaintakoa beste da.**

Joera hori taldeko hedabide guztietan agertzen da.

Dena dela, kirolaz hitz egiten dugunean, eta erraz imajinatu daitekeen bezala, **kirol informazioa futbolari buruzko informazioa da gehienbat**, zeren kirol albisteen % 45,7k eta kirolei eskaintako denbora osoaren % 51,8k futbola jorratzen baitute. Kirolen alorrean futbolari dedikatzen zaion denbora bereziki handia da ETB2n eta Radio Euskadin, % 63,7 eta % 59,8ko ehunekoekin, hurrenez hurren.

Horrenbestez, datuek agerian uzten dute zein den komunikabide publikoen apustu informatiboa, hots, gu entretenituta egotea. Hala, albiste guztien artetik, % 44,5 kirola (% 20,4) eta gizartea (% 14,8) dira.

Betetzen al du EITB komunikazio taldeak bere zeregin informatiboa zerbitzu publiko moduan



Albistegiak gehiago zuzentzen dira "denbora-pasa" izatera informatzera baino, "guztia ondo doa" edo "hemen ez da ezer gertatzen" lemapean.

2.- Euskal Herria ez da existitzen. Marko autonomikoaren erreferentzia indartzen da goragoko errealitate sozial eta politiko baten zati bezala: Estatu Espainola

Joera horrek euskal identifikazio-elementuen eduki espezifiko propio guztiak lausotu eta saihestu nahi ditu, baldin eta ezarritako ordena juridiko-politikotik harago badoaz.

Ez da kasualitatea Euskal Herriaren lurralde-identifikazioa informazio estrategia horren lehenengo biktima izatea. Lurraldea eta hor bizi diren pertsonak dira funtsezko erabakitze-eskubidearen erabileraren oinarri nagusia.

Lurraldea lausotzea, zatikatzea eta desitxuratzeta baliagarria da oraingo egoerari kontrajartzen zaion edozein proiektu politiko alternatiborekiko identifikazio komunitarioa oztopatzeke.

Euskal Herriaren mapa eguraldiarekin zerikusia duten albisteetatik desagertzeak - kidetasun sinbolo esplizitu bezala- informazioaren alor guztietan finkatzen den joera bat islatzen du.

Euskal Herriaren ikusezintasun politikoa eta lurraldekoa ezinbesteko premisa da errealitatea ukatzeko. Informazioak jorratzen ez duena ez da existitzen.

Horretarako, EITB taldearen albistegietan hauxe aurkitzen dugu:

- **Nafarroaren eta Iparralderen presentzia eskasa.** Nafarroak % 6,2ko presentzia baino ez du albistegietako titularretan, eta Iparraldek % 1,2, hau da, guztira % 7,4 soilik. Espainiar Estatuarekin zerikusia duten albisteek, berriz, % 16,8ko presentzia dute titularretan, eta proportzio hori % 21,3raino igotzen da ETB2n, eta % 17raino denbora-tartetan neurtuta. Joera hori berdintsua da gainerako albisteetan, zeren Nafarroari eta Iparraldeari buruzko albisteek ez baitute % 10 gainditzen.

Nafarroako irudiei dagokienez, ez da % 4ra iristen, eta Ipar Euskal Herria ez da existitzen.

- **Euskara. ETB1en, gaztelaniak presentzia handia du, euskarak ETB2ko albistegietan duen presentziarekin alderatuz gero.**

ETB2n eta Radio Euskadin, izen toponimikoak gaztelaniaz erabiltzen dira gehienbat: kasuen % 77,22an.

Euskararen presentzia txarren tratatzen dutenak telebistak dira.

ETB2n, kasuen % 57an ez da mantentzen pertsona protagonistaren ahotsa adierazpenak euskaraz egin baditu. ETB1en, aldiz, kasu gehienetan mantentzen da protagonistaren ahotsa, adierazpenak gaztelaniaz izan arren, hau da, kasuen % 70,9an mantentzen da.

ETBko irudietan agertu ohi diren kartelei dagokienez, kasuen % 38an gaztelaniaz soilik agertzen dira, kasuen % 44an elebidunak dira eta kasuen % 18an euskara hutsezkoak. Azpimarratu behar da ETB1eko irudietan agertzen diren kartelak ehuneko berdinetan daudela banatuta euskarazkoen, gaztelaniazkoen eta elebidunen artean: % 33,3. ETB2n, berriz, ehunekoak hauexek dira: % 66,7 gaztelaniaz soilik, % 20 euskara hutsez eta % 13,3 elebidun.

- **Eremu autonomikoa Estatu espainiarraren luzapen bat da.** Informazioaren trataera gehiago dagokio Estatuaren atal bati eta ez erakunde komunikatibo propio bati.

- Modu esplizituan, EAE da albistegietan gehien agertzen den erreferentzia, bai titularretan eta bai albisteetan; nolahi ere, azterlanak egiaztatzen duen bezala, erreferentzia inplizitu nagusia Espainia da.

Transmititzen den informazioa autonomikoa da batez ere, eta bere asmoa da EAEko eta Nafarroako autonomia autonomien Estatu osoarekin homologatzea; gainera, elkarrengandik bereizitako autonomia erkidego bezala aurkezten dira, Espainiaren eremuan modu eztabaidaezinean errotuta.

Kidetasun-zeinu bakarrak autonomia Erkidegoaren barnean daudenak dira, dela EAEn dela Nafarroan, edo espainiar edo frantziar eremuan.

Gehien erabiltzen den izena Euskadi da, kasuen % 29,1ean agertzen baita, baina Espainia ez dago oso urrun, kasuen % 24,7rekin. Horrez gain, Euskal Herria terminoa Euskadi Irratian erabiltzen da gehienbat, eta ETB2n ez da inoiz ere erabiltzen.

- Identitate-zeinu geografiko eta politikoak lausotzeko estrategiak -esparru autonomikoa indartu nahirik- badu ondorio garbi bat, alegia, **identitate nazional espainiarra indartzeko estrategia** bat. Estatuak bere epizentroa, eta autonomia erkidegoak, modu erradialean, bere berezko osagaiak dira. Horretarako, **hizkuntza inplizitu bat erabiltzen da, eta Espainiaren erreferentzia nabarmentzen duten sinboloak eta irudiak ere bai.**

Identitate- edo lurralde-erreferentzia inplizituetan, Espainia da gehien erabiltzen dena, kasuen % 50,3an; erreferentzia autonomikoa, berriz, kasuen % 30,5ean agertzen da.

Albistegietan agertzen diren instituzio guztien artean, espainiarrak eta autonomikoak ia proportzio berdinean agertzen dira: % 43,5 eta % 45,2, hurrenez hurren.

Espainiari buruzko erreferentzia inplizitu horiek nagusi dira Ekonomiari (% 55), Nazioarteko Gaiei (% 50,7) eta Gizarteari (% 43,9) buruzko informazioan ere, eta % 71,8raino igotzen dira kirolaren inguruko informazioan.


ETBko albistegietan, bistaratzen diren banderen % 77,5 bandera espainiarrak dira, % 11,3 ikurrinak eta % 4,2 ikurrina eta espainiarra batera.

- **Euskadi Irratian** joera positiboagoa eta lasaiagoa aurkitzen dugu euskal identitate-zeinuak neutralizatzeko joeran; ildo horretatik, Euskal Herria terminoa komunikazio talde publikoaren albistegietan erabili denean –oso gutxitan-, aipamenean % 85 hedabide horretan izan da.

Komunikazio-estrategia horren arrazoia izan liteke taldea zuzentzen dutenei gutxiago interesatzen zaiela euskarazko irrati bat informazioaren transmisore gisa, zeren gutxiago baitira informazioaren hartzaileak eta /edo entzulego horiengan zailagoa dela emaitzak epe laburrera lortzea.

Edonola ere, ez dugu pentsatu behar disfuntzio esanguratsurik dagoenik; euskaraz zein gaztelaniaz estrategia berdina da, ñabardurak ñabardura.

Betetzen al du
EITB komunikazio
taldeak
bere zeregin
informatiboa
zerbitzu publiko
moduan



3.- Albistegiak alderdikeriaz erabiltzen dira, eta ezker abertzaleari buruzko informazioak iragazkitik pasatzen dira. Sentsibilitate/alderdi politikoen agerpen-aldia ez dator bat ordezkapen sozialarekin, eta bai oraingo PSE-PP itunarekin. Azterlanean azaleratzen denez, albisteen kopurua eta haien denbora banatzeko irizpideek ez dute inolako zerikusirik EITBko arduradunek argudiatzen dutenarekin, alegia, interes informatiboarekin, pluraltasunarekin eta ordezkagaitasunarekin.

- Alderdi Sozialista da albistegietan gehien **agertzen den** alderdia, agerraldien % 47,7rekin; PPren agerraldiekin batera, bien agerraldiak % 55,6ra igotzen dira, hau da, agerraldien gehiengo dira. Bigarren postuan EAJ dago, agerraldi guztien % 21,9rekin.

Hori taldeko hedabide guztietan gertatzen da, baina modu nabarmenean bi telebista kateen kasuan. Azpimarratu behar da Euskadi Irratian EAJ lehenengo postuan dagoela, agerraldien % 33,8rekin, eta bere atzean PSOE, % 26rekin.

- Aztertutako albistegietako **denborari** dagokionez, PSE-PSOEek eta PPK bereganatzen dute denboraren zati handiena, % 51,7rekin –biek batera-; bigarren postuan EAJ dago, % 35,9rekin. Denbora hedabideen arabera aztertuz gero, haxe azpimarratu behar da.

- **PSE-PSOEren agerraldiek albistegietako denboraren % 70 gainditzen dute, bi telebistetan.**

- Radio Euskadin, PSE-PSOEren eta EAJren agerraldiak orekatuta daude, % 45,6ko eta % 41eko ehunekoekin, hurrenez hurren.

- Ezker abertzalea baztertuta uzten dute albistegietan, Euskadi Irratian izan ezik, bertan denboraren % 11,6 okupatzen baitu, azterlanaren arabera.

- **Ezker abertzaleari buruzko informazioak iragazkitik pasatzen dira.** Erakunde politikoen artean, ezker abertzaleari buruzko albisteetan soilik erabiltzen da gehiago lokuzioa protagonisten zuzeneko ahotsa edo tarteak baino. Hau da, hori ezker abertzalearen kasuan bakarrik gertatzen da. Horrenbestez, ezker abertzalearekin zerikusia duen informazioari eskaintzen zaion denbora berez gutxi izateaz gain, hitza kasuen % 30,2an soilik ematen zaio, zeren gainerako % 69,8an esataria tartean jartzen baita informazioa emateko.

4.- Azterlanak agerian uzten du komunikazio publikoko eredu honek ez duela kontuan hartzen ez errealitatea ez bere komunikazioaren hartzailea den gizartea, edo baztertu egiten dituela.

Euskal errealitate sozial, politiko eta linguistikoa baztertu egiten da, eta horrek, jakina, desafekzioa (ikusle/entzule kopuruaren jaitsiera) sortzen du euskal gizartean, zeren irizpide propioak baititu. Albisteek eta haien tratamendu informatiboak espezifikotasuna eta hurbiltasuna galtzen dituzte, eta gainerako kate pribatuekin homologatzeko joera garbia erakusten dute. Horren bidez sakrifikatzen da euskal komunikazio talde publikoaren balio erantsia izan beharko litzatekeena.

5.- Barne tentsioak sortzen dituen informazio eredia.

Estrategia hau ezartzeak, ezartzen ari den moduan, tentsioak sortzen ditu langileen kolektiboaren baitan; izan ere, interes politiko eta alderdikoi konkretuen arabera instrumentalizatu-tako informazioak tentsioak sortzen ditu, EITB taldeak bete beharko lukeen zerbitzu publikoko rola nahita ahazten baita. Hortaz, agintekeriaz jokatzen da, langileen behin-behinekotasuna erabiliz, plantilako finkoei mehatxuak eginez eta zigorrak ezarriz.

Betetzen al du
EITB komunikazio
taldeak
bere zeregin
informatiboa
zerbitzu publiko
moduan



